

ZUMAIA / Antzerki saioak eta ipuin-kontaketak Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan

ZUMAIA. DV. 1616ko apirilaren 23a literaturarekin lotuta dagoen eguna da, data horretan zendu bai-tziren historia osoko bi idazle ezagunenetakoa: Miguel de Cervantes y Saavedra, Don Quixoteren idazlea, eta William Shakespeare, besteak beste, Romeo eta Julietaren egilea eta Avoneko Bardoa izengoitiarekin ezaguna. Data hau aitzakiatzat hartuta, Liburuaren eguna ospatzen da urtero nazioarte mailan. Ohikoa izaten da egun horretan liburuak erosi edota oparitzea. Zumaiako Udal Liburutegiak pauso bat haruntzago eman nahi izan du eta astean zehar egingo diren zenbait ekitaldi antolatu ditu.

Lehen ekitaldia Liburu eguna ospatzen den egun berberean, astelehenean egingo da, arratsaldeko 5:30etik aurrera Foronda kultur etxeko haur liburutegian. Bernardo Atxagaren Asto bat hipodromoan ipuina kontatuko dute Gorringo taldeko kideek.

Ondorengo egunetan bi antzerki saio eskainiko dira. Asteazkenean, 5:30ean eta haur liburutegian, Liburuzainaren bahiketa izeneko haur antzezlanaren emango dute Xoxipe taldeko lagunek. Ostiralean, berriz, gaueko 10etatik aurrera, Erredakzioa itxita izeneko antzezlanaren taularatuko du Patxi Santamaria aktore zarauztarrak Aita Mari zine aretoan.

Irakurketa bultzatzeko

Zumaiako Udal Liburutegiko liburuzaina den Nerea Uriarteren esanetan, irakurketa bultzatzeko eta liburutegia ezagutarazteko helburuarekin sortu da ekimena.

Liburuaren astea bezala izendatu den ekimen hau antolatzen den lehen urtea bada ere irakurketa bultzatzeko hainbat ekitaldi antolatzen dira urtean zehar Udal liburutegian. Hilabetearen behin hurrei zuzendutako ipuin-kontaketa saioak izaten dira. Horretaz gain, apirilaren 2an, haur liburuaren eguna zela-eta, ipuin irakurketa saioa izan genuen, non gurasoek ipuinak nola kontatu ikasi zuten. Aste Santu bezpera bazen ere, jende dezente etorri zen, azaldu digu Uriartek.

Irakurketa zaletasuna bultzatzeko beharrezkoa ikusten du Uriartek gurasoen papera: Sarritan gurasoek egiten dutena hurrek imitatu egiten dute. Gurasoak irakurtzen ikusten badituzte, hurrengan irakurketa zaletasuna pizteko aukera handiak izango dira, etxean ikusten dutenarekin ikasten baitute hain zuzen hurrek.

Haurrak eta kanpotarrak

2.500 bazkide inguru ditu une honetan Udal liburutegiak. Hauek denak, noski, ez dira etortzen baina hala ere zenbaki aipagarria da. Aipatzen dutenez, adin guztietako bazkideak daude eta hauetatik asko haurrak dira. Bazkide berrietatik ia gehien- tsuenak ere haurrak direla gainera-tzen dute. Azken urteetan kanpotar ugari heldu da Zumaira eta hori liburutegian ere nabari dela adierazten du liburuzainak, izan ere bazkide berri dezente kanpotarrak dira.

Liburutegira igotzen den jendearen adinean fase desberdinak egoten direla ere argitzen dute liburuzainek: Fijoak diren haurrak nerabezarora pasatzen direnean ez dira asko hurbiltzen. Gero, berriz, unibertsitatean sartzen direnean, berriro hurreratzen dira.

Beraien ikasketetarako liburu tekniko ugari erabiltzen dituzte gazte hauek, baina eleberriak maileguan ere hartzen dituzte. Izan ere, iaz 11.000 mailegu egin ziren Zumaiko Udal liburutegian. Gehien alokatzen diren liburuak modan daudenak izaten dira. Orain gutxi arte Dan Brown-enak edo La sombra del viento bezalako best seller-ak asko alokatzen ziren. Aurten La catedral del mar edo La Brecha bezalako liburuak izan dira arrakastatsuenak. Hala ere, azken aldian ez dugu libururik erreserban, dio Nerea Uriartek.

Liburutegiek oraindik etorkizuna dutela uste du liburuzainak: Hala espero dut, behintzat. Internetekin liburutegiak desagertuko zirela esan zuten. Berdina esan zuten egunkariei buruz, baina paperean edo pantailan irakurtzea ez da gauza bera. Ez oraingoz, behintzat.